



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA, EKAINAREN 30EKO EKAITZAREN OSTEAN ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA**

Ekainaren 30ean, larunbata, arratsaldeko lehen orduetan izan zen ur, haize eta kazkabar ekaitz izugarriak eragina izan zuen, batez ere, Lezan, Eskuernagan eta Navaridasen, modu ezberdinean bada ere. Ekaiz horren eraginez ur jaza handia izan zen, eta Eskuernagan gutxi gorabehera 40 litroko kotara iritsi zenez, luizi batzuk izan ziren, lurzati batzuk partzialki urez hartuta geratu ziren eta bideetan hainbat kalte izan ziren (arekak lohiz beteta, ezpondaren bat askatuta, zuloak ...) . Era berean, haize bortitzak aihenak hautsi zituen, batez ere, hodiedako egituretan, eta horrek eragina izan zuen mahastietan, kokapen eta esposizioaren arabera. Kalteak askoz handiagoak izan ziren Leza inguruan, euri eta haize bortitzarekin batera izandako kazkabarrak ia historik eta mahats-mordorik gabe utzi baitzituen gunek kaltetuenetako aihenak.

Mahastia fruituak ematen amaitzen eta hostotsu zegoen gertakari meteorologikoa gertatu zenean, eta bi alderdi horiek oso onuragarriak dira, une horietan mahats mordoak oso malguak izaten baitira eta kazkabarraren eraginari hobeto eusten baitiote. Gainera, hosto asko egotea babesgarri izan zen eta kalteak handiagoak izatea eragotzi zuen.

### **Kaltetutako azaleraren mugak**

Ekaitzak eragin kaltegarria izango du mahastiaren 150 hektareatan gutxi gorabehera. Bilakaera datozen asteotako klimatologiak eta mahastizainek egiten dituzten lanek eta tratamenduek baldintzatuko dute.

Eremu hori Lezako hirigunearen mendebaldean eta hegoekialdean dago, eta iparraldetik A-124 errepidearen eta Herrera mendateko bidearen arteko bidegurutzetara inguruetaraino zabaltzen da, eta hegoaldetik Navaridasko udalerrirantz.

Beste 150 hektareatan, haizeak ekarritako eragin ezberdinak izan dira, baina uste dugu ez dutela eragin nabarmenik izango, ez ekoizpenaren ez kalitatearen aldetik,

nekazariak tratamendu egokiak ematen eta lan gehiago eginez eta baliabide gehiago jarritz gero.

Aurretik esan duguna, jakina, hemendik aurrera gertatzen diren egoerek baldintzatuko dute, hala nola, prezipitazioek eta tenperaturek. Datozen egunak erabakigarriak izango dira gorrina agertzeko, baita heltzearen aurreko datak ere. Baina, jakina, heltze hori lurzati kaltetu guztietan baldintzatu eta atzeratu egin daiteke, hosto kopurua eta horren azalera fotosintetikoa gutxitzearen ondorioz.

Laburbilduz, ekainaren amaierako ekaitzak eragindako kalteak, kopuruaren eta nolakotasunaren aldetik, leku eta denbora zehatz batzuetan gertatu dira. Batez ere, Leza eta Navaridasko mahastizainen mahasti batzuetan izan dira kalterik handienak, baina mahasti horietatik gehienek dute aseguruia eginda. Gainerako azalera, mahastiak duen leheneratzeko ahalmenari eta mahastizainaren profesionaltasunari esker, ia mahasti gehienak bere onera etorriko dira hemendik eta mahats bilketara arte.

Mahastizainek, orain, mahastia babesten jardun behar dute batez ere, gorrinaren aurkako produktu orabaintzaile eta prebentziozkoak emanez; izan ere, eurien eta zaurien ondorioz, izugarri handitu da gorrina izateko arriskua, haien bidez igarotzen baita gaixoa landarera. Astearen erdialdera iritsitakoan, lurra drainatu eta egurasten denean, tratamendua emateko unea izango da.

Arabako Errioxako gainerako lekuetan mahastiaren zikloa normaltasunez doa aurrera, fruitua emateko prozesua amaitzen dagoelarik. Landaretza eta osasun egoera aparta da, eta mahatsak itxura ona du.

Guardia, 2018ko uztailaren 2a.  
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua